Sortuz, euskara bultzatu zutenei

Euskararen alde lan egin duten pertsonen biografiak eman ditu argitara 'Bidegileak' bildumak

AMAIA ELIZONDO
Donostia

«Lurdes Arrieta, Mikela Gastesi, Patxi Ondarra, Joxe Mari Aranalde, Filipe Oihanburu, Bernardo Garro *Otxolua* eta Andoni Arozena euskarari lotutako ekimenetan aitzindari eta bide erakusle izan dira guztiontzat», adierazi zuen Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak. «Horiek bezalako pertsonen edo bidegileen lana eta pentsamendua ezagutzera ematea da gure helburua», erantsi zuen *Bidegileak* bildumako 49. eta 50. biografia sorten aurkezpenean.

Baztarrikaren esanetan, «izan direlako gara» esaldiak definitzen du bidegileak bildumaren izateko arrazoi eta helburu nagusia. Izan ere, bi sorta horiek egiteko irakasleak, apaizak eta euskaltzainak izan dituzte ardatz. «Hiru motatako bidegileak daude sorta hauetan: batetik, ikastola sortzaileak; bestetik, euskaldun berriak, Philippe Oihanburu bezala; eta azkenik, erbestera joan ziren euskaldunak. Horiek dira munduan osoan euskararen enbaxadore izan direnak».

Euskarari dagokionez hainbat hitz izan zituen Baztarrikak: «Nazioartean euskara inoiz baino interes gehiago pizten ari da, eta hainbat unibertsitatetatik eskaerak egin dizkigute euskara irakasgai izateko».

■ BIDEGILEAK

Lurdes Arrieta
(Azpeitia, 1958-2005)

Irakaslea. Azpeitian jaio eta bertan ikasi bazuen ere, Lantziegoko (Araba) ikastolan hasi zen lanean, 21 urterekin. Azkenean, han geratu zen bizitzen. Ikastolaren sorreran lan handia egin zuen, baita Lantziegon euskara bultzatzearen alde ere. Auto istripuan hil zen ikastolako beste irakasle batzuekin batera.

■ **Egilea:** Miel A. Elustondo

Patxi Ondarra
(Bakaiku, 1925-2005)

Apaiza eta euskaltzalea. Hamabi urterekin Altsasuko Kaputxinoen seminario txikira joan zen. Teologia ikasketak Iruñean egin zituen. Euskara ahaztu zuela aitortu zuen, baina berehala berreskuratu zuen hizkuntza. Ordutik, euskara bultzatu zuen eta Euskaltzaindiak euskaltzain oso izendatu zuen, 1980an.

■ **Egilea:** Rosa Miren Pagola.

Mikela Gastesi
(Gorriti, 1929-1997)

Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearekin batera Iruñeko ikastola sortu zuen. Irakasle batzuei ere lagundu zien euskararen eta euskarazko irakaskuntzan abiatzen. Bizitza osoan ikastolen aldeko lana egin zuen Nafarroako hiriburuan. Euskaltzalea izateaz gain, Eusko Alderdi Jeltzaleko Aberri Batzarrean ahaldun ere izan zen.

■ **Egilea:** Rosa Miren Pagola.

Jose Mari Aranalde
(Gaztelu, 1933-2005)

Apaiza. Herriko eskolan lehen ikasketak egin ondoren, Donostiako seminarioan egin zituen ikasketak meza eman zuen arte. 1958an Aramako apaiz izendatu zuten. Euskara eta bertsolaritza maite zituen. Gai-jartzaile bezala askotan ibili zen. 1975ean, Euskaltzain urgazle izendatu zuten eta Herri Literatura batzordeko kidea.

■ **Egilea:** Joxemari Iriondo.

Filipe Oihanburu
(Argeles-Gazost, Biarno, 1921)

Musikaria eta dantzaria. Euskaldun berria da, gaztetan, euskara baitezpada ikastea pentsatu baitzuen. Oldarra dantza taldean ibilitakoa, eta ondoren, berak sortu zuen beste bat. Dantza anitz maite zuen eta egun, Etorburu abesbatza kudeatzen jarraitzen du. Irratian ere ibili zen lanean, betiere, euskara bultzatuaz.

■ **Egilea:** Eneko Bidegain.

Aña Etxehandi
(Eiheralarre, 1935)

Euskal Herria sortu bazen ere, San Frantziskon (AEB) urte ugari daramatza. Izan ere, familia euskal amerikarra da berea. Artzai lanetara joan ziren gaztetan Ameriketara, baina egun, San Frantziskoko Euskal Etxearen ardura darama. Han, euskararen aldeko lanean dabil, dantza, pilota edota bestelako ekitaldiak antolatzen.

■ **Egilea:** Joseba Etxarri.

Bernardo M. Garro
(Mundaka, 1891-1960)

Idazlea. Idazlan batzuk argitaratu zituen bere garaiko aldizkarietan, *Euzkadin*. *Otxolua* literaturan eta beste adar askotan ere ibilia da, kantu, musika, eskulan, dantza, mendi kontu eta abarretan. *Bijar Donian-era* narrazioa da Garroren sorkuntza lanen artean nabarmenena. Horrez gain, *Euzkerea* aldizkarian idazten zuen.

■ **Egilea:** Igone Etxebarria.

Andoni Arozena
(Lasarte-Oria, 1907-1989)

Antzerkigilea eta idazlea. Haren ustez, antzerkia zen euskararen oinarri sendoenetako bat, eta, beraz, euskara bultzatu nahi bazen, antzerkia bera bultzatu behar zen. Berak idatzitako antzerkien artean daude, *Zorigaitz malkoak* (1929), *Txilibitu* (1930), *Andregaia naita...* (1933), *Balujan* (1934) edota *Mox, Miss, Xapi* (1935) lanak.

■ **Egilea:** Nerea Navarro.

Ibarrako Udala

IRAGARKIA

Ibarrako udalak, abenduaren 5eko 184/2007 alkate dekretu bidez, erabaki du 7.1 J.U.ren Hiritartze Proiektuaren hasierako onarpena. Proiektua Jose Manuel Elicegi arkitektoak egin du.

Arrazoibideak aurkeztu ahal izateko, espedientea jendaurrean jarri da hogei eguneko epean, iragarki hau Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita, ekainaren 30eko 17/1994 Legeak, Etxebizitza eta Hirigintza Antolamendu eta Kudeaketarako Tresnak Izapidatzeko arloan Premiazko Neurriak hartzeari buruzkoak 7. artikuluan dioenaren arabera.

Ibarran, 2007ko abenduaren 5ean.
Alkatea

GALDAKAOKO UDALA

EUSKARARAREN ALDE !

www.galdakao.net

Cecilia Bartoli mezzosopranoa Donostian izango da otsailean

ERREDAKZIOA
Donostia

Cecilia Bartoli opera kantari italiarrak Kursaalen kantatuko du otsailean, Basileako Ganbera Orkestrarekin. Bertan, Maria Malibranen omenez grabatutako azken diskoko kantak interpretatuko ditu kantariak. Hau da Donostian kantatuko duen lehen aldia.

Bartoli duela bi urte izan zen Euskal Herrian, Bilboko Euskalduna jauregian eta Iruñeko Baluarten, *Opera proibita* bere disko ezaguna aurkezten.

Cecilia Bartoli egungo opera kantari famatuenetakoa da, teknikoki paregabea, eta bere diskoekin milaka ale saldu ditu azken urteotan. Maria Malibranen omenez grabatutako *Iraultza erromantikoa* lanarekin marka guztiak hautsiko dituela iragarri dute musika adituek.